

Elgoibar - 1299. zenb.
XXX urtea - 2023-09-22



TOKIKOM

BARREN

Musika astindua

Sotoko Hotsak
eta Gararock

Egin zenutelako gara!

eHSE



Argitaratzailea:



Leire Kerexeta Berasaluze

Ikaslea

'Grazie mille', Luca



"Bederatzi hilabete bakarrik pasatu zituen Lucak Euskadin, baina oso harro esaten du bere bihotza euskalduna dela"

Babeslea: Laguntzaileak:



Gijuzkoako Foru Aldundia

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta, Anjel Ugarteburu. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



youtube.com/@Elgoibarrennet

Gaurkoan munduko beste txoko batetik idazten dizuet. Erroman nago, orain dela pare bat aste heldu nintzen, baina jada etxetik kanpo bizpahiru hilabete daramatzadan sententzioa daukat. Egunak hemen oso azkar pasatzen dira, denbora osoan zehar duzu zerbait ikusi edo egiteko aukera; hori da hiri handiek eta historia askoko lekuek eskaintzen duten gauza onenetariko bat, dudarik gabe.

Badakit oraindik oso denbora gutxi daramadala hemen eta oraindik goiz dela denda batetik irtetean agur entzun beharrean *arrivederci* entzun eta arraroa ez egitea edo edota kafe bat eskatu ondoren *grazie* esan behar izatea eskerrik asko esan ordez. Hala ere, badago Erroman agur eta eskerrik asko esateko aukera ematen dizun pertsona bat.

Luca deitzen da, 40 urte inguru dauzka eta Erromako Trastevere auzoko biztanlea izan arren jaiotzez, bere burua euskaldun gisa aurkeztu zigon. Bederatzi hilabete bakarrik pasatu zituen Lucak Euskadin, baina oso harro esaten du bere bihotza euskalduna dela eta bere mingaina berriz euskararena.

Hiriko txoko xarmangarrienak erakutsi zizkigun Lucak Erroman bost hilabete pasatuko ditugun hainbat ikasleri: Fontana Di Trevi, Piazza Navona, Panteoia... eta azalpen guzti hauetan Euskadiri hamaika erreferentzia egin zizkion. Arratsaldeari amaiera emateko, euskal futbol taldeetako banderekin topo egin genuen taberna batean, momentu horretan ordurarte erreferentzia izan zirenak errealitate bilakatu ziren, Donostiako taberna batean nengoela zirudien.

Eskerrak eman nahi dizkiot Lucari Erroman etxean sentitzeko aukera emateagatik, baina batez ere, Euskadi mundu guztiak ezagutzeko aukera emateagatik. Benetan hunkigarria da entzutea, gure herria bederatzi hilabetetan bakarrik ezagutu duen pertsona batek harro aldarrikatzen duela euskalduna dela eta bere herria Euskadi dela.

4 GUTUNAK

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Indarrak batuz gauza handiak lortzen direla frogatuta dago. Animatu eta egin dezagun ekarpen txo bat. Informazio gutzia: zaporeak.eus.

A. I. Z.

Zaporeak Elkarteari lagunduko diogu?

Europara iristen diren errefuxiatuei janari duina eskaintzen dien irabazi asmorik gabeko elkarte da Zaporeak. Egunero 2.000 otordu kozinatzen eta banatzen dituzte Greziako Lesbos uharteko kanpamentuan, errefuxiatu esparruetan janaria prestatzen diete harrapatuta dauden pertsona zaurgarrienen bizi-baldintzak hobetzeko helburuarekin (gaixotasun kronikoak dituzten pertsonak, indarkeria jasan dutenak, haurdun dauden emakumeak eta bidaiderik gabeko adingabeak).

Guzti hau aurrera eramateko, ordea, ezinbesteko da dirua. Europako agintariek beste aldera begiratzen duten bitartean, herritarrok egin behar dugu haiek egiten ez dutena. Erakunde publiko eta pribatuen inplikazioa ere garrantzitsua da, beraien ekarpenekin proiektua babestu eta laguntzen baitute.

Zorionez, Zaporeak sortu zenetik euskal gizartearen sostengua izan du errefuxiatuen alde lana egiteko. Baina oraindik gehiago behar da. Nola lagundu dezakegu? Oso erraza da.

Dohaintza bat eginez: Zaporeaki ematen diogun 10€ bakoitzeko, janari duina ziurta dezakegu Lesboseko 10 errefuxiatuentzat. Helburua: bertako sukaldean 2.000 janari baino gehiago prestatu eta errefuxiatuen artean banatzea.

Bazkide eginez: bazkideen aldizkako laguntza edo laguntza puntualei esker Grezian dauden errefuxiatu esparruetan janaria prestatzen dute harrapatuta dauden pertsona zaurgarrienen bizi-baldintzak hobetzeko helburuarekin.

Enpresentzat: proiektu jakin bati, ekarpen ekonomiko edota baliabide materialak eta elikagaiak emanez langundu daiteke. Lan esparru edo espazialitatearen bidez ere lagundu daiteke proiektu honetan.

Zerga onurak: dohaintzan eta bazkidetzan zerga onurak daude, kenkariak daude Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan (PFEZ).



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 655 658



Argia eta energia aurrezteko kontzientzia falta zaigu:

"Herriko hainbat gunetan argia piztuta egoten da gauez, han inor ez dagoenean ere. Horren adibide da Herri Eskolako patioa, esaterako. Gaueko 23:00ak aldera ateratako argazkia da ondokoa. Ikastetxea itxita, inor ez dago patioan eta argi guztiak piztuta. Gauza bera gertatzen da Idotorbeko aparkalekuan. Bi farola handi daude, eta gau osoan egoten dira piztuta. Iruditzen zait kontzientzia energetikoa falta zaigula".



Lekuederreko jarlekuak hondatuta daude:

"Lekueder parkeko egurrezko jarlekuak hondatuta daude. Ume asko ibiltzen da parke honetan, eta gurasoek asko erabiltzen dituzte jarleku horiek. Beraz, eskertuko genuke lehenbailehen kontpontzea. Eskerrik asko".



Erreka, plastikoz beteta:

"Kilimon erreka garbitzen jardun ginen zapatuan lau lagun, auzolanean, eta Garagartza eta Trinitate kaleen arteko zatian hamar poltsa handi bete genituen litxarrerri poltsaz eta lataz. Horrez gain, aterki zaharrak, patine baten gurrpilak, metalezko kutxa bat, obretako konoak, burdinazko xaflak, poliespan zatiak eta bestelako zabor ugari bildu genuen. Argazkian, bildutakoaren lagin bat. Herritarrei eskatuko genieke kontzientzia hartzeko eta etxean lantzeko gai hau, itsasoa kalean hasten delako".



Autobusa beteta etortzen da Eibartik:

"Ia egunero geratzen dira elgoibartarrak King Kongeko autobus geltokian Zarautzera eta Donostiara joan ezinik, Eibartik etortzen den autobusa beteta iristen delako. Gidariak badaki arazo hori dagoela, eta seguruenik Lurraldebusek ere bai. Elgoibarko Udalak ezin al du ezer egin horren harira? Argi dago errefortzuko autobus bat beharrezkoa dela". Udalera jo du BARRENEK, eta Maialen Gurrutxaga alkateak ondorengo erantzun du: "Azkenaldian herritar batek baino gehiagok agertu digu kezka hori. Hori dela-eta, Foru Aldundira eta Lurraldebusera idatzi bat bideratuko dugu horren berri izan dezaten eta gure kezka jakinarazteko. Bestalde, jakinarazi nahi dugu Udalaren eskumena herriko mugikortasunari dagokiona dela. Bailara eta lurralde mailakoak, aldiz, ez daude Udalaren esku".

2024ko udaberrian hasiko dituzte Errezabal zahar etxea eraikitzeko lanak

Errezabal zahar etxearen eraikuntza eta kudeaketa kontratua sinatu zuten irailaren 1ean Maite Peña Gizarte Politiketako diputatuak eta Maialen Gurrutxaga Elgoibarko alkateak. Kontratuan jaso dituzten epeen arabera, sei hilabeteko epean idatzita egon beharko du zahar etxea eraikitzeko proiektuak, eraikuntza lanak 2024ko udaberrian hasiko dituzte, eta egoitza 2026an martxan egongo da.

Zahar etxe berriak 87 plaza izango ditu, bizikidetzaren unitate txikietan banatuta; horietatik 22k unitate psikogeriatricoa osatuko dute, eta plaza gehienak banakako geletan egongo dira. Bestalde, desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-unitateak 18 eta 22 plaza artean izango ditu, eta buru-nahaste larria dutenentzako egoitza-unitateak 16 eta 21 plaza artean. Egoitza-



unitateez gain, adinekoentzako eguneko zentro bat ere egongo da, 40 plazarekin. Zentro osoak 10.500 m² inguruko azalera izango du, eta instalazio "modernoak, irisgarriak eta komunitateari lotuak" izango ditu, inguratzen duten berdeguneekin, egoteko gune zabalekin, jantokiekin eta kafetegiarekin. Bestalde, udalaren jabetzako lur azpiko aparkaleku publiko bat ere eraikiko dute, 70-80 plazarekin. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 88,5 milioi eurokoa da, eta horietatik 20,6 milioi euro eraikuntzara bideratuko dituzte. Maialen Gurrutxaga alkateak adierazi du proiektua gauzatzeko erabateko konpromisoa dutela.

36ko Gerran Zirardamendiko frontean hildako gudariak eta milizianoak omendu dituzte



1936ko irailaren 25ean Zirardamendi-Aiastiako frontean hil zituzten hamalau gudariak eta milizianoak omentzeko ekitaldia egin zuten domekan. Sabino Arana Fundazioak eta hainbat memoria-elkartek, tartean Elgoibar1936k, hartu zuten parte Elgoibarko Udalak urtero antolatzen duen omenaldi ekitaldian. 2013an antolatu zuten

estreinakoz omenaldi hau, eta geroztik, irailaren 21aren bueltan egin izan da beti, egun horretan sartu zirelako tropa frankistak Elgoibarren. Bi helburu ditu omenaldiak: batetik, soldadu haiek egin zuten sakrifizioa aitortu, eta bestetik, memoria historikoa egitea, bizikidetzarako eta adiskidetzarako bide gisa.

Itziar Ajuria Ikastolako lehenengo andereñoa izan zenari eman diote aurten Lila Saria

Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailak Lila Saria sortu zuen iaz, udalerriko bizitza sozial, hezitzaile, politiko, ekonomiko, kirol eta kultureko edozein arlotan emakumeen eta gizonen arteko eskubide eta aukeraberdintasuna sustatzen lagundu duten pertsona eta erakundeek egindako lana aitortzeko. Aurtengoan Itziar Ajuria Ikastolako lehenengo andereñoa izan zenarentzat izan da aipamena. Aurten bost hautagai izan dira lehiaketan, guztiak ere herriko pertsona edo erakundeek proposatutakoak. Epaimahaia Lilako Mahaiko bi kidek, Berdintasun Saileko teknikariak, Berdintasun Arloko arduradunak eta alkateak osatu dute.

Arratiako Ubide herriko Anbe baserrikoa zuen aita Itziar Ajuriak, eta debarra ama, eta umetan etorri zen Elgoibarrera. Eskola publikoetan 15 urtera arte ikasi eta gero, familiako jostundegian egin zuen lan 38 urte bete arte. Ondoren, Banco de San Sebastianen hasi zen lanean, letrak kobratzen, baina banketxeak berak kanporatu egin zuen gero, emakume batentzako lana ez zela iritzita. Baina euskararen eta euskal kulturaren alde egindako lanagatik izan da bereziki ezaguna eta estimatua Elgoibarren. 50eko hamarkadan, euskal kulturaren aldeko mugimendu ezkutu eta isilaren lehen urratsetan parte-hartze



aktiboa izan zuen, eta 1962an zabaldu zuten Elgoibarko ikastolako lehenengo andereñoa izan zen. Ez zuen hasiera errazik izan. Antolakuntza pedagogikoari dagokionez, zailak izan ziren urte haiek, eta soldata urriarekin eta Gizarte Segurantzza kotizatu gabe egin zuten lan garai hartako andereñoek, tartean Itziar Ajuriak. 1986. urtera arte egin zuen lan ikastolan. Ekainean hil zen, 99 urte zituela.

Atzo ospatu zuten Lilaren bigarren urteurrena, eta Lila saria banatzeaz gain, Esti Curielek 35 huts antzezlanak aurkeztu zuen.



Asier Izagirre izan da Karakate Biziriketik udarako antolatutako duen kanpainaren irabazlea

Karakate Bizirik plataformak beraien materialarekin (kamiseta, poltsa edota banderatoa) argazkiak ateratzera animatu dituzte herritarrek uda honetan, eta Asier Izagirre izan da kanpainaren irabazlea. Txillarre eko dendako otarra jaso du sari moduan. Plataformatik jakinarazi dute dozenaka argazki jaso dituztela udan zehar, eta eskerrak eman dizkiete parte hartu duten herritar guztiei.

Arrakastatsua izan da Marokoko lurrikaran kaltetutakoei laguntzeko kanpaina



Irailaren 8an 6,8 graduko lurrikara batek gogor astindu zuen Marrakexko (Maroko) hego mendebaldeko eremua eta milaka hildako eta zauritu eragin zituen. Lurrikaran kaltetutakoei laguntzeko kanpainak egin dituzte han-hemengo mezkietan, baita Elgoibarko Tawasolen ere. Mantak, izarak, eskuohialak, burkoak, linternak, kanpin-dendak, berotzeko arropa, sendagaiak, pixoihalak, konpresak, biberoiak, haurrentzako hauts-esnea, gelak, zabor poltsak eta abar eskatu zituzten, eta, ordu gutxitan furgoneta bat betetzeko adina material batu zuten.

Mezkitako arduradunek eskerrak eman dizkiete parte hartu duten herritar guztiei.

Haziak biltzeko irteera antolatu dute domekarako

Atxutxiamaiak, Baso Biziak elkarteak eta Morkaikok haziak biltzeko irteera antolatu dute domekarako, eta bide batez, landare exotikoen behaketa ere egingo dute. Adin guztietarako jendearentzako irteera izango da. 09:30ean bilduko dira IMHko aparkalekuan, eta eguerdirako itzuliko dira. Jantzi erosoak, hamarretakoa eta ura eramateko gomendioa egin dute antolatzaileek. Izena emateko: labur.eus/haziakk.

Hilaren 27an hasiko ditu mobilizazioak 24/7 plataformak

Udako etenaldiaren ostean mobilizazioei ekingo die berriz 24/7 Plataformak. Hilaren 27an, eguaztenean, protesta egingo dute anbulatorio aurrean, 12:00etan. Herritarrei dei egin diete mobilizazioetan parte hartzera, "egoera hasi zirenean baino okerragoa delako egun". Berriz esan dute Elgoibarrek ez duela anbulatorio berririk behar, baizik eta kalitatezko zerbitzua, eta gogoratu dute larrialdi zerbitzurik gabe dagoela herria eta barikutik astelehenera zentroa itxita egoten dela. Horren erantzukizuna EAJ eta PSOeri egotzi diete. Gogoratu dute 5.501 herritarrek sinatu zutela anbulatorioa asteko zazpi egunetan 24 orduz zabaltzeko eskatzen zuten agiria, baina agintariek entzungor egin dutela.

Pankartak kendu dizkietela salatu dute Altzolako tren geltokiaren aldeko plataformatik



Altzolako tren geltokiaren aldeko plataformako kideek hainbat kartel jarri dituzte Elgoibarren eta horietako hiru kendu egin dizkietela salatu dute. Bata N-634 errepidean kokatuta zegoen, eta beste biak, trenbidean. Lehenengoa ez dakite zein erakundek kendu dien, baina trenbideko biak Euskotrenek kendu dituen susmoa dutela adierazi dute. Gaineratu dute ez dutela jokabide hori ulertzen, garraio publikoaren aldeko pankartak direlako soilik, eta ez dagoelako inoren kontrako irainik edota salaketarik.

Elgoibarko establezimenduek eremu digitalean egiten duten euskararen erabilera neurtu dute

Elgoibarko merkataritza eta ostalaritza establezimenduetan euskararen erabilera sustatzea da Udalaren eta Elgoibarko Izarraren helburuetako bat, eta horren harira, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza establezimenduek eremu digitalean euskara zenbat erabiltzen duten aztertu du Dendartean elkarteak, Gipuzkoako merkataritza, ostalaritza, zerbitzu, enpresa eta autonomoen taldeak.

Azterketa horren arabera, Elgoibarko establezimenduen %31,41ek webgunea dute. Webgune gehien dituen sektorea zerbitzu profesionalena da. %71,88k dute, baina euskararen erabilera webgune horietan oso baxua da, %21,74koa. Aldiz, pertsonen ekipamenduan, ostalaritzan eta osasun/estetika zerbitzuetan webgune kopurua baxua da, baina euskararen erabilera altuagoa: %57,14koa. Gehien erabiltzen den domeinua '.com' da, % 59,15, eta .EUS

domeinuaren erabilera %5,63koa da. Euskararen erabilerari dagokionez, %64,79k ez dute euskararik erabiltzen webgunean. Sare sozialik ez dutenen kopurua handia da (%48,67), bereziki, elikadura sektorean, eta euskararen erabilera sarean oro har baxua da, %34,48koa. Azkenik, whatsapp bidezko harremanak ere aztertu dituzte, baina %10,18k bakarrik dute enpresa whatsapp-a, eta horietan ere euskararen erabilera baxua da.

Gogorazi dute, bestalde, Elgoibarko Udalak eta .EUS Fundazioak duten hitzarmenari esker, puntueus domeinua doan eskuratzeko aukera dutela herriko establezimendu, elkarte eta enpresek:

- Euskara Zerbitzua: 943 744 366
euskara@elgoibar.eus
- .EUS: 943 085 051
laguntza@puntu.eus
- Elgoibarko Izarra: 643 499 169
kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus

Gaur arratsaldean hasiko du ikasturtea 'Aldenk Alden' egitasmoak

Aldenk Alden egitasmoko partaideak kalera irtengo dira gaur, 19:00etan. Kultur Etxe aurrean bilduko dira, eta lantalde berria ezagutzeko aukera izango dute. Horrez gain, urriaren 30erako aurreikusia duten ekintza adostuko dute, eta hurrengo ekintzak diseinatzeko informazioa emango diete, erronka batzuen

bidez. Erronka horietan parte hartzen dutenen artean hainbat sari zozkatuko dituzte 20:00ak aldera. Egitasmoa arduradunek jakinarazi dute datorren astean emango dutela iraila-urriko programazioaren berri, eta izena emateko epea zabalduko dutela. elgoibarkoizarra.eus/aldenkalden atalean eman beharko da izena.

Pentsiodunen Mugimenduak bilera egingo du urriaren 2an



Oporraldia amaituta, astelehenean hasi zituen mobilizazioak Pentsiodunen Mugimenduak. Bestek beste, hauek dira beraien eskaerak: 1.080 euroko gutxieneko pentsioa, erosteko ahalmenaren galeragatiko konpentsazio-ordainsaria ezartzea berriro, eta pentsioetan dagoen genero arrakala amaitzea, konpentsazio bat ezarrita eta alarguntza-pentsioa oinarri arautzailearen %100eraino hobetuta. Datorren urriaren 2an egitekoa duten bilerara deitu dituzte pentsiodunak. 12:00etan bilduko dira, Kultur Etxean. Jubilatuen Biltokiko zuzendaritza berriarekin biltzeko asmoa ere azaldu dute.

ELKARREKIN ETA ELKARREN ONDOTIK DATOZ SOTOKO HOTSAK ETA GARAROCK JAIALDIAK

✍️ Ainar Argoitia



Juxe Areta

Iazko bide beretik, eskutik datoz aurten ere Sotoko Hotsak eta Gararock jaialdiak. Atzo Sinuösek antolatuta Elgoibarko Kultur Etxeko Sotoan Harat talde berarrak emandako kontzertuari gaur eta bihar izango direnak batuta, zazpi kontzertu izango dituzte musikazaleek aukeran, bertatik bertara. Euskal Herriko taldeak eta kanpotik etorritakoak daude gonbidatuen artean, sona hartzen hasiak diren talde gazteak eta musikaren eszenan itzal bat badutenak.

A tzo hasi zen Sotoko Hotsak, Harat taldearen kontzertuarekin, eta gaurko beste kontzertu bat iragarria dute Sinuöse kultur elkarteko lagunek. Ez dute edonolako taldea lotu gaurko ere: Cometa. Talde gaztea dira, indar eta proiektio handikoa eta aurkezpen estetiko zaindukoa. Madrildik datoz eta dantzan jarri nahi dituzte Kultur Etxeko sotora batzen direnak. 23:00etan hasiko da kontzertua, Kultur Etxeko Sotoan.

Bihar, berriz, Mendaron izango da jai, Garagartza auzoan. Bost talderen emanaz gozatzeko aukera izango da bertan, debalde.

Sortzetik bertatik mantendu duen ezaugarriari eutsiko dio aurten ere Gararockek, familia osoak batzeko eskaintza prestatu dutelako antolatzaileek. 17:00etatik 18:00etara aurpegiak margotzeko tailerra izango dute hurrek, eta 17:30ean hasiko du musika jaialdia Zarauzko Ithaca talde gazteak. Jarraian etorriko dira Magia Bruta, Rukula, Sua eta Doctor Explosioneakoak. Hiru eszenatoki, 10X20ko karpa, txosna, food truck furgoneta, bokatak... lotu daitezkeen detaile guztiak zaindu dituzte antolatzaileek eta jaialdi ahaztezina izateko osagai guztiak ditu biharkoak. Aurten, estreinakoz, Punto morea ere jarriko dute.



Cometa

Lau musikaririk osatutako talde madrildarra da. Laukote horrek 2019an sortutako proiektuaren eboluzioa da Cometa. Beren buruaz diote hasieran banda eklektikoagoa zirela, baina pandemian, eta bereziki *No creo en el amor* beren lehen singlea konposatu ondorenean, beste jite bat hartu zutela. Geroago etorri ziren *Bulería espacial* eta *Como un gorrión*. Argentinako rocka dute erreferentzia nagusitzat, baina gero, nor bere ukitua eranstean dio taldeari.

Elgoibarren, gaur, 23:00etan, Sotoan



Ithaca

Orioko eta Zarauzko lau gaztek sortu zuten Ithaca taldea, 2021ean: Leire Olariaga (ahotsa eta teklatura), Eneko Eizagirre (baxua), Arantza Igartua (gitarra eta ahotsak) eta Josune Freire (bateria, saxofoia eta ahotsak). Iaz, abenduan, 2022ko Gaztea Maketa Lehiaketan parte hartu zuten, *Amestu dezagun*, *Piztiak* eta *Ekaitza* kantuekin, eta hogei finalisten artean aurrera eginda, finalean sartzea lortu zuten. *Piztiak* kantuarekin GazteBizHitza Saria eskuratu zuten, entzuleek eman ohi duten saria. Beren buruak eta beren musika definitzeko ondorengo hitzak aipatu dituzte: energia, freskura, kaosa eta lotsagabetasuna. Hitz baten: gaztetasuna. Belaunaldi baten oihuak eta melodiak islatzen ditu beren musikak. Bizipenei kantatzen diete, eta zuzenekoetan dena eman ohi dute.

Mendaron, bihar, 17:30ean, Garagartzan



🎧 Igor Eizagirre

Magia Bruta

Isabel Fernandez konpositore getxoztarraren proiektua da Magia Bruta. Electrobikinis taldean hasi zuen musika ibilaldia 90eko hamarkadan Fernandezek. Talde hura oso ezaguna egin zen, besteak beste Pepsiren iragarkirako grabatutako *Train* kantuagatik. Talde hartan Miren Iza bateria jolearekin aritu zen, gaur egun Tulsa taldean dabilenarekin, eta gerora, Charades taldea eta Aries bakarkako proiektua sortu zituen Isabel Fernandezek. Magia Brutan, berriz, bi lagun dira, Isa bera eta Aida Torres, garai batean Mendaroko liburuzaina izan zen eibartarra eta Jupiter Jonen ibilitakoa [2018ko Gararocken jo zuten]. Musika elektroniko psikodelikoa egiten dute.

Mendaron, bihar, 19:00etan, Garagartzan



Rukula

Martxel Arkarazok sortu zuen Rukula, 2015ean, eta 2016an taldearen izen bera duen diskoa eman zuen argitara. Oihan Agirretxe (bateria), Aitor Pagola (gitarra), Jon Agiriano (gitarra) eta Martxel Arkarazo berak (baxua) osatzen dute taldea eta musika instrumentala jorratzen dute. Rock indartsua egiten dute, hardcore ukitukoa. Hiru disko dituzte argitaratuta: *Rukula* (2016), *Hazi beltzak* (2018) eta *Traganarru* (2023ko azaroan). Etiketa bakar batean sailkaezinak diren zortzi abesti sartu dituzte Andoingo Studios Garaten grabatu duten beren azkeneko lanean. Beren buruaz diote "zuzenekoetan lehertzeko prest" dagoen banda bat direla.

Mendaron, bihar, 20:15ean, Garagartzan



Sua

Bizkaitik dator Sua, Jatabetik. Lau lagunek osatzen dute taldea: Ane Barrenetxea (ahotsa), Janire Lopez (baxua, teklatuak), Julen Gilbert Wright (gitarra) eta Esteban Gabiria (bateria). 2018an hasi ziren sortzen, eta 2019an, Gaztea Maketa Lehiaketa saria irabazi zuten. 2020an, *Ordu Beltzak* diskoa kaleratu zuten Airakaren eskutik eta, urte bereko azaroaren 26an, Gaztea Saria irabazi zuten. Iaz, berriz, beren bigarren lan luzea argiratu zuten, 11 kantuz osatutakoa: *Gorde genituen beldurrak* (Airaka, 2022). Pop-rocka eta post-punka egiten dute. Gararocken jo eta Japoniara doaz, jiran.

Mendaron, bihar, 22:00etan, Garagartzan



Doctor Explosion

1989an Xixonen sortutako taldea da (Asturias, Espainia). Bere musikan 1960ko hamarkadako musika estilo askoren eta 1970eko hamarkadako punk britainiarraren eragina soma daiteke, eta arrisku handirik hartu gabe esan daiteke, garage rock estiloan talde mitikoenetako bat dela estatu mailan, erreferente bat. Ingelesez kantatzen zuten hasieran, eta orain, gaztelaniaz ere bai. 1990eko hamarkadan, Espainiako eszena independente deiturikoaren adierazle nagusietako bat izan ziren.

Mendaron, bihar, 23:30ean, Garagartzan



Tradizioz Xixon Sound izenekoan sartu izan dira, nahiz eta etiketa horren pean zeuden talde asko baino pixka bat lehenago sortutakoak izan. Jorge Muñoz Cobo da taldeko abeslari eta arima, eta soinuaren mundu analogikoa ondoen ezagutzen duenetako bat ere bai beharbada. Xixonen duen Circo Perrotti estudioan makina bat taldek grabatu dute harekin, analogikoan, orain 40 urte egiten zuten moduan, dena zintan. "Nahiago dut adimen analogikoa ergelkeria artifiziala baino", esan izan du. Zuzeneko oso indartsuak eta ikusgarriak egiten dituzte, eta zaleak dira oholtzatik jende artera salto egiten, ikuskizuna ematen.

Demetrio Vallejo zena omenduko du Elgoibar 1936 taldeak bihar

1 936ko irailaren 21ean sartu ziren tropa frankistak Elgoibarren, eta egun horren bueltan antolatu ohi du Elgoibarren memoria historikoaren alde lanean ari den Elgoibar 1936 taldeak urteroko ekitaldia. Aurten, irailaren 23an egingo dute, Errosario kaleko 24. zenbakiaren parean, 12:00etan.

Hantxe bizi izan zen Demetrio Vallejo abertzale eta sozialista, eta bere etxeko balkoitik "Gora Euskadi askatuta!" oihu egin zien soldaduei, Elgoibar hartu zuten egunean bere etxepetik igaro zirenean. Demetrioren alaba Mirenek begiak bizi-bizi zituela kontatu ohi zuen gertakari hura bizi zen artean: "Etxean ezkutatu ginen beldurrez, baina balkoira irten ginen ikustera. Han zihoazen plazarantz, besoa altxata eta kantuan. Azkeneko patruila Errosario kaleko Ama Birjinaren pare aldera iritsi zenean, gure aitak 'Gora Euskadi askatuta' oihu egin zuen balkoitik. Zoratu egin zen. Hurrengo egunetan lorik ere ez genuen egin beldurrez, gure etxe parean, bi ate gorago, karlista batzuk bizi zirelako". Tropak sartzerako, Vallejotarrak Santanderrera ihes egitekotan egon ziren, baina etxean bizi zuten amama gaixotu eta bertan behera laga zuten plana. EAE-ANVko kidea zen Demetrio Vallejo, eta bertsio ofizialaren kontra, Gernika Francoren aldekoek bonbardatu zutela esateagatik ere jarri zuen arriskuan bere burua.



1915. urteko argazkia da goikoa. Demetrio Vallejo bera (†) da ezkerrekoa, eta bere familiakoekin ikusten dugu, Santa Klarako komentuaren atzeko aldean. Mikaela Astigarraga 'Porru' (†) zuen ama eta Francisco Vallejo (†) palentziarra aita. Kanpotik etorri zen Francisco eta Elgoibarren ezkondu zen Mikaelarekin. Berak ez zekien euskaraz, baina emazteari argi eta garbi esan zion seme-alabei euskaraz egiteko, nahiz eta berak ezer ez ulertu. Felisa (†), Pako (†) eta Rafaela (†) dira argazkian ageri diren gainerakoak, Demetrioren anai-arrebak.



1941. urte inguruko erretratua da hau. Demetrio Vallejo eta Crucita Arriaga senar-emazteak ageri dira izkinetan, beraien seme-alabekin: Jasone (†), Imanol (†), Miren (†) eta Maite.

IRIA ANDRADE

Kultur Kafea tabernaren kudeatzailea

✍️ Ainara Argoitia / 📸 Asier Orbea

Uztailetik itxita egon ostean, joan zen bariku arratsaldean zabaldu zuten berriro Aita Agirreko Kultur Kafea. Iria Andrade gazte elgoibartarrak kudeatuko du aurrerantzean taberna, eta 3.708,00 euroko (BEZik gabe) urteko kanona ordaindu beharko dio Udalari zerbitzua kudeatzeagatik. Bi urteko prestazioa izango du, ondoren beste bi urtez luzatu ahal izango dena bi aldeak konforme egonez gero. Besteak beste gosari eta pintxoak eskainiko ditu egunero tabernan, eta afariak bariku eta zapatuetan.



“Ahal dudan guztia egingo dut gazteek ere beren lekua topa dezaten hemen”

Taberna bat da Kultur Kafea, baina izenean bertan darama beste zerbait gehiago izateko asmoa. Zer izango da Kultur Kafea Iria Andraderekin?

Izango da taberna bat, izan nahi duena leku atsegin bat bezeroentzat, erakarri nahi duena herriaren goiko alde honetara ere gazte jendea, bereziki asteburuetan, eta hilean behin gutxienez kultur ekintzaren bat antolatuko duena. Baldintza batzuk jarri dizkigute taberna hartzeko, besteak beste ordutegiarena, hilean behin kultur ekintzaren bat antolatzeko beharra eta euskara zaintzea. Erronka bat da niretzat, baina iruditzen zait taberna leku onean dagoela, gauzak antolatzeko lekua baduela eta Elgoibarren gutxi izango direla hau besteko irisgarritasuna dutenak. Okerrena da bilgetu txikia duela.

Aurkeztuguzu zure burua, Iria.

Elgoibartarra naiz, gaztea, ostalarien familia batetik nator eta duela 11 urte hasi nintzen osabarenean, Txarriduna tabernan, laguntzen. Ikasten nenbilen orduan, baina egun berezietan zerbitzen egiten nuen lan Txarridunan. Egia esan ez zitzaidan lar gustatu hura eta desenkantua hartu nuen. Tailerrean hasi nintzen gero lanean, bizikletentzako gurpilak egiten, baina han ere ez

nuen luzarorako ikusten nire burua. 11 hilabete egin nituen, baina tarte horretan egunero joaten nintzaion amari etxera mila ideiarekin. Zoratu nuen ama nire burutazioekin. Gero, pandemia ondorenean, Malapen hasi nintzen lanean, barran. Gauzez egiten nuen lan Malapen, jende gaztearekin, eta konturatu nintzen hori gehiago gustatzen zitzaidalda. Urtebete egin dut Malapen lanean eta Udalak Kultur Kafea lizitaziora atera behar zuela entzun nuenean, proiektua aurkeztea erabaki nuen, amak bultzatuta. Neure proiektu bati heltzeko biderik errazena zela esan zidan amak, ez zuelako eskatzen hasierako inbertsio handi hori egiterik, eta baldintzek erakartzen ninduten. Badakit hau Bilboko Kafe Antzokiaren itxurako zerbait bihurtzea ezinezkoa dela, baina nahi nuke taberna ezberdin bat izatea. Erronka handia ere bada, hilero zerbait antolatu beharra, eta ziurrenik iritsiko dira hilabete batzuk zer egin ez dudala jakingo, baina Malapen egon naizen denboran gazte asko ezagutu ditut proiektu ezberdinetan dabilzanak eta uste dut lagunduko didatela. Nik inguruko gazte denei esaten diet etortzeko behintzat birra bat hartzera asteburuetan, ea lortzen dugun pandemia aurreko giro hori. Orduan, goitik beheraino ibiltzen ginen

poteoan, baina gero etorri zen tabernan jarrita egon behar hori eta hasi ginen denok Maalan gelditzen. Nik ahal dudan guztia egingo dut gazteek ere beren lekua topa dezaten hemen.

Zer duzu buruan?. Aurrekontua oztopo ez balitz, zer ekarriko zenuke?

Ni Zetak zalea naiz, eta horixe ekarriko nuke, aparkalekua bera ere kenduta, baina hori ezinezkoa da. Ez naiz diru askorekin abiatzen, baina iruditzen zait hau toki ona izan daitekeela hasten ari diren taldeentzat, eta elkarri laguntzeko aukera badugula. Elgoibarren badago EME elkarte eta nik ez ditut talde denak ezagutzen, baina badut haietako batzuekin harremana eta elkarlan bat bilatuko dut. Inauguraziorako Aitor Asenjo eta Danel Legorbururi proposatu nien etortzea eta ikusi nuen sekulako giroa sortu zutela. Txokoa bera ere ona iruditu zitzaidan era horretako kontzertuetarako. Musika eskola ere ondoan daukat eta badaukat hangoekin hitz egiteko asmoa ere. Buruan baditut ideiak. Asteburuetan emango dugu afaltzen momentuz, eta iruditzen zait jendea afaltzen dagoen momentu horretarako ere ekarri ditzakedala DJak, musika lasaia jartzera. Joango naiz gauzak probatzen eta jendeak zer nahi duen ikusten. Proposamenetarako irekia nago, hori bai. Orain, aitaren koadro batzuk ere baditugu ikusgai hemen, hilabeterako. Urriaren 28an, Kuadrillen Eguna izango da Elgoibarren eta baneukan egun horretarako zerbait antolatzeke gogoan ere, baina lagunek ohartarazi didate Puro Relajok Elgoibarren kontzertua ematekoa duela iragarria duela bere webgunean eta harekin ez dago lehiatzerik.

Tabernan aldaketa batzuk ikusi ditugu. Zer giro sortu nahi izan duzu?

Sartu nintzanean oso zuri ikusi nuen dena, hotzegi, eta saiatu naiz kolorea sartzen altzarrietan eta landare batzuk ere ipintzen, oso zalea naizelako. Taberna honek gauza bat du txarra, gure etxeko tabernarietako lehenengo kolpean ikusi zutena: barra oso ezkutuan gelditzen dela. Ez dakit nork diseinatu zuen barra hor! Jabetu nintzen barra aurrean aulki luzeak jarritz gero, oraindik eta ezkuturago gelditzen zela barra eta gainera jendea han pilatzeko arriskua zegoela, eta horregatik, aulki luzeak lekuz aldatu ditut, eta txoko ezberdinak sortu bezeroen beharretarako.

"Badakit hau Bilboko Kafe Antzokiaren itxurako zerbait bihurtzea ezinezkoa dela, baina nahi nuke taberna ezberdina izatea Kultur Kafea"



Familian bietatik daukazu zuk: Aita, Arturo Andrade, eskulturgilea, eta amaren partetik, tabernariak asko. Amaren aldera edo aitaren aldera egin duzu zuk gehiago?

Amarenera. Nire ahizpa gehiago da Andrade. Hark badauka sormenerako zaletasun hori. Diseinua ikasten ari da eta ikaragarria iruditzen zait ehun zati batetik soineko bat sortzeko duen abilezia hori. Ahizpari ere esan diot ea animatuko litzatekeen bere lan batzuk erakustera hemen.

Zaindu beharreko beste baldintza bat ere baduzu: euskara.

Bai. Hasieran eskatu zidaten zerbitzarietako EGA izatea eta esan nien hori ia ezinezko ikusten nuela. Gero eta zailagoa da ostalaritzan lan egiteko prest dagoen bertako jendea topatzea. Elgoibarko tabernetan ere gehienak latinoamerikarrak dira. Ahalegin denak egingo ditut zerbitzari euskaldunak topatzen, baina ez da beti erraza izango. Bi zerbitzari gazterekin hasten naiz eta biak dira euskaldunak. Baina, bai, saiaturiko naiz hori zaintzen.

Euskara ikasteko matrikulazio epea zabalik dago Elgoibarren

Euskara ikasteko matrikulazio epea zabaldu dute AEK Euskaltegian eta Debabe Udal Euskaltegian. Hilaren 26ra arteko epea egongo da izena emateko eta dirulaguntzen eta beken inguruko informazioa behar duenak bi euskaltegietan nahiz Elgoibarko Udaleko Euskara Sailean jaso ahaliko du. Harremanetarako honako bideak zabaldu dituzte:

- Udal Euskaltegia: Aita Agirre plaza, 3 (943 742 731)
- AEK Euskaltegia: Gabriel Kurutzelaegi, 10 (607 601 423)
- Udaleko Euskara Saila: Aita Agirre, 2 (943 744 366)

AEK Euskaltegiak bere eskaintzaren berri zabaldu du prentsa ohar bidez. Euskaraz ezer ez dakitenentzat edo apur bat jakin eta gehiago ikasi nahiko luketenentzako eskolak emango ditu, bai eta administraziorako, irakaskuntzarako eta Osakidetzarako tituluak eskuratzeko eskolak eta HABEren A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 probetarako prestatzeko eskolak ere. 16 eta 18 urte bitarteko gazteentzako ikastaro bereziak ere eskainiko dituzte, C1erako prestatzeko (EGArekin parekoa). Ikasturte osorako matrikula 20 eurokoa izango da.

Zabalik dago 'Tertuliak' programan izena emateko epea

2001ean sortu zuten Elgoibarko Izarrak, Elgoibarko Udalak eta herriko bi euskaltegiek *Tertuliak* programa, euskaraz berba egin nahi baina erraztasunik ez zeukatenei euskaraz jarduteko aukera eskaintzeko helburuarekin eta aurten ere jarri nahi lukete martxan, urrian. Urrian hasi eta ekainera arte astero bilduko dira kideak, ordubetez tertulian aritzeko. Izena emateko epea zabalik dago, eta interesa dutenek urriaren 16ra arteko epea dute. Informazio gehiago:

- Elgoibarko Izarra: 943 741 626
elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus
- AEK euskaltegia: 607 601 423
elgoibar@aek.eus
- Udal Euskaltegia: 943 742 731
udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus

Miguel Trilloren 'Hiri tipologiak' argazki-erakusketa zabalduko dute gaur Elgoibarren



Miguel Trillo (Cadiz, Espainia 1953) argazkilariak *Hiri tipologiak* erakusketa zabalduko du gaur Elgoibarren, 19:30ean. Bisita gidatua izango da gaurkoa. Ongarri Argazki Taldeak antolatu du, Udalaren laguntzarekin. Erakusketa urriaren 6ra arte egongo da ikusgai, astelehenetik zapatara, 18:30etik 20:30erako ordutegian.

Altzariak berritzeko eta birziklatzeko ikastaroa antolatu du Eskuz-ek

Eskuz arte tailerrak altzariak berritzeko eta birziklatzeko ikastaroa emango du urriaren 3tik aurrera eta zabalik dago izena emateko epea. Eskolak martitzenetan eta eguenetan izango dira, 15:00etatik 17:00etara, eta 18:00etatik 20:00etara. Izena eman nahi duenak honako telefono zenbakira deitu behar du: 615 764 337 (Nieves).

Bertso eskolak jarraipena izango du aurten Mendaron

Urteetako etenaren ostean, iaz antolatu zuten berriro bertso eskola Mendaroko Udalak eta Bertsozale Elkarteak, ahozko komunikazioa bertsoaren bidez lantzeko helburuarekin, eta iaz eman zuen emaitza ikusita, aurten berriro errepikatzea erabaki dute. Lehentasuna iazko taldeari eustea izanda, LH4tik DBH3ra arteko gainerako gazteen artean ere zabaldu dute deialdia. Urrian hasi nahi dituzte eskolak, eta izena ematen dutenen arabera, osatuko dituzte taldeak. Izena emateko: 943 670 575 / gipuzkoa@bertsozale.eus. Iruñe Basagoiti bertsolariak emango ditu eskolak.

Herrian bertan euskara ikasteko aukera zabaldu nahi du Mendaroko Udalak aurten ere

Herrian bertan euskara eskolak jasotzeko aukera eman nahi die Mendaroko Udalak herritarrei. Horretarako, baina, euskara ikasi nahi dutenen beharrak zeintzuk diren jakin nahi du, haien beharrei ahal den ondoen erantzuteko asmoz. Horretarako, irailaren 20tik

30era arteko epea zehaztu du. Euskara ikasi nahiko luketen mendaroarrei mendaroeuskaltegi@gmail.com helbidera idazteko edota 652 764 499 telefono zenbakira deitzeko eskatu diete. Telefono arretarako ordutegia 15:00etatik 21:00etara artekoa dela zehaztu dute.

Gaur hasiko dute ikasturtea Bota literak! Elgoibarko idazle gazteen klubekoek, baina interesa dutenek badute oraindik izena emateko aukera

Lehen Hezkuntzako seigarren mailako, DBHko, Batxilergoko eta Erdi Mailako Lanbide Heziketako ikasleei zuzenduta dago Bota literak! Elgoibarko idazle gazteen kluba, eta literatura-trebetasunak sustatzea eta garatzea ditu helburu. Aurten ere Jasone Osoro idazle, kazetari eta literatur sorkuntzan aritutako elgoibartarrak gidatuko du kluba, eta saioak gaur, hilak 22, hasiko dituzte. Aita Agirre kulturguneko areto nagusian izango dira saioak, bariku arratsaldeetan, 17:00etatik 18:30era bitartean [Azkeneko saioa maiatzaren 24an izango da].

Izena eman nahi dutenek Elgoibarko Udaleko Euskara Sailera jo dezakete (Aita Agirre kulturgunea, 1). Informazio gehiago nahi duenak, berriz, 943 744 366 telefono zenbakira



deitu dezake edota euskara@elgoibar.eus helbidera idatzi.



Euskal dantzak ikasteko eskoletan izena emateko epea zabaldu dute Mendaron

Mendaron bertan euskal dantzak ikasteko aukera zabaldu du In Leike kultur elkarteak aurten ere eta dagoeneko zabaldu dute izena emateko epea. Elgoibarko Haritz Euskal Dantzari Taldeko Eider Ansolak eta Debako Gure Kai taldeko Amaia Ajuriagoikoak emango dituzte eskolak, Azpilgoetako Kultur Etxean, martitzenetan (Urriaren 3an hasita). Nagusien taldearen ordutegia 19:00etatik 20:00ak artekoa izango da, eta umeena, zehazteko dute oraindik. Izena ematen duten ume nahiz gaztetxoek arabera zehaztuko dituzte ordutegiak, baina 17:00etatik 19:00ak arteko tartean izango direla aurreratu dute. Izena emateko: 626 531 294 (Eider).

Debarrenean 60ko eta 70eko hamarkadetan sortutako rock taldeak omendu dituzte Elgoibarren

Debarrenean sortutako lehenengo rock taldeak omendu zituzten joan zen domekan Elgoibarren, Aita Agirre kulturgunean. Lehenengo, *Debarreneko rockaren sorrera gogoan* izeneko ikus-entzunezkoa ikusi zuten omenaldira batutakoek. Argazkiz eta musikaz osatutako ordu erdiko ikus-entzunezkoan, eskualdeko hamalau rock talderen nondik norakoak jaso dituzte: Espresion Sonora elgoibartarra, Los Mansos soraluzearra eta Los Walter's, Gemrub, 96 Lagrimas, The Ravens, Equipo 13, Los Brinner's, Iciar y los ajenos, Los Doblones, Revolucion 70, Sonidos del silencio, Safari eta Blood Live eibartarrak. Eta ikus-entzunezkoaren ondoren Leok'k taldeak kontzertua eman zuen. *Bizirik hala ere* diskoko kantu guztiak eta zaharrago beste batzuk ere jo zituzten Alfonso Guillo kide den Leok'k taldekoek, tartean bi bertsiok: Led Zeppelin taldearen abesti instrumental bat eta Tina Turnerrentzat egindako *River deep, mountain high* abestia. Azken hori Alfonso Guillok euskaratu du, eta berak abestu zuen. Ekitaldia txalo zaparrada handi batekin amaitu zuten.



Deba haraneko historiaurrea azalduko du gaur Aritza Villaluengak Mendaron



Lau hitzaldiko zikloa izan da EHUK eta Morkaiko-Leizarpe espeleologia taldeak Mendaroko Udalaren laguntzarekin antolatu dutena, eta gaur izango da azkeneko saioa, 19:00etan, udaletxeko udalbatza aretoan. Aritza Villaluenga EHUKo irakasleak emango du hitzaldia eta hauxe izango du gaia: *Deba haraneko historiaurrea makrougaztunen ikuspegitik. Ondare arkeologiko eta paelontologikoaren garrantzia iragana ulertzeko*. Argazkia joan zen barikuan Naroa Garcia Ibaibarriaga EHUKo irakasleak historiaurreaz eta emakumeaz emandako hitzaldikoa da.

Jaietan murgilduko dira aiastiarrek gaur zortzi

S an Migel eguna da gaur zortzi, irailaren 29an, eta egun horretan jaiak hasiko dituzte Aiastian, 10:30ean, kanpai jotzearekin. Meza (11:00etan), pilota partida (13:00) eta bazkaria (14:30) dituzte iragarrita lehenengo egunerako eta Baltzola eta Andonegi trikitilarien meza-ostekoa, mokaduaekin batera. Zapatuak, berriz, umeen jolasak, bazkaria, haurrentzako puzgarri eta tailerrak, bolo txapelketa, Haritz dantza taldekoen emanaldia (19:30), afaria, Emaion taldearekin erromeria (23:30) eta 3 hirukiak DJaren saioa iragarri dituzte. Egun horretarako, gainera, autobus zerbitzua ere lotu

dute 19:00etatik 05:00ak biartean Txarridunako errotondatik. Antolatzaileek esan dute bazkarirako nahiz afarirako erreserba egin behar dela ondorengo telefono zenbaki honetara deituta: 666 269 636 (Elorri) eta erreserba egiteko azken eguna irailaren 28a izango dela.

Domekan bukatuko dituzte jaiak. Egun horretarako, ohi legez, artzain txapelketa antolatu dute eguerdirako, eta 17:00etan hasita, idi-demak egingo dituzte gero. Elgoibarko Soartek, Orioko Olibenek eta Muruetako Kamifnok parte hartuko dute. Arratsaldea girotzeaz Baltzola eta Andonegi trikitilariak arduratuko dira.

Musika elektronikoak hartu du Idotorbe

Gauza berria zen eta lekua ere berezia zen, baina erantzun zuen jendeak. Batez ere gazte jendea inauguratu zen joan zen zapatuan Idotorbera, Dantz eta Alternative Division erakundeek antolatutako musika elektronikoaren jaira. Dantz point izena eman zioten egunari eta bi zati izan zituen: lehenengo, master classa jasotzeko aukera izan zuten aurrez izena emandakoek eta ondoren, 18:00etatik gauerdia pasatxora arte musika jartzen aritu ziren DJ ezberdinak, tartean Imanol Beristain elgoibartar gaztea. Lekuak eta gau-giro ederrak egin zuten gainerakoa.



Primeran sortu dute, euskal edukiak sarean jarriko dituen plataforma digitala

Barikutik ikusgai dago mundu zabalean euskara eta euskal edukiak zabaltzeko nahi dituen doako plataforma berria: Primeran. www.primeran.eus webgunean erabili ahal da, eta plataformaren aplikazioa deskargatu daiteke telefonoetan eta SmartTVetan, Google Play-n, eta laster batean Apple App storean ere bai, aplikazioa jaitzita, bai eta Chromecast bitartez eta Hbbtv-etan ere. Edukiak ikusteko, hori bai, erregistratu egin behar da.

Dagoeneko 3.000 atal edo film baino gehiago ikus daitezke Primeranen. Horietako gehienak

euskaraz ikus daitezke, euskarazko audioarekin edo euskarazko azpidatziekin. Euskadiko Filmategia dago laguntzaile nagusien artean, eta Zinemaldian azken urteetan saritutako hainbat filmekin eta Tokikom tokiko komunikabideen elkarrearen edukiekin abiatuko du ibilbidea plataformak; edonola ere, euskal eduki, kultura eta ekoizleei irekitako proiektua da eta, beraz, datozen hilabeteetan musika, antzerki edota beste kultur adierazpen eta jaialdi askotako edukiak ere izango dira katalogoan. Hala iragarri dute sustatzaileek.

LEIRE GARATE

Arraunlaria

✍ Ainhoa Andonegi / 📷 Asier Orbea

Leire Garatek (Elgoibar, 1988) Ondarrun eman zituen aurreneko lehen pausoak, bateletan, eta handik pare bat urtera hasi zen arraunean Orion. Emakumeen taldea sortzeko jendea behar zuten Orion eta taldean sartzeko aukera iritsi zitzaion 2012an. Ordutik Orioko taldean aritu da, 11 urtez. Ibilbide horretan makina bat garaipen eskuratu ditu: Kontxako Bandera hiru aldiz irabazi du eta beste horrenbeste aldiz, Euskotren Liga. Aurtengo denboraldia esku hutsik amaitu dute tituluei dagokienez, eta arraun ibilbidea horrela amaitzeak pena apur bat eman dion arren, argi dauka lagatzeko unea iritsi zaiola. Aurrerantzean beste modu batean biziko du arrauna, eta beste kirol batzuk probatzeko aukera ere izango du.



“Dena emanda eta ametsak beteta utziko dut arrauna”

Iaz ere erretiroa hartzekotan egon zinen, baina berriz itzuli zinen. Aurtengo erabakia behin betikoa da?

Nire lagunei galdetzen badiezu esango dizute urtero nagoela lagatzekotan, eta gero ez dudala inoiz lagatzen, baina bai, aurtengoa behin betikoa da: iritsi zait arrauna lagatzeko momentua. Iaz laga behar nuen, baina azkenean batetik eta bestetik bueltatzeko eskatu zidaten. Aurten estreinakoz zortzi traineru lehiatu gara eta hori ere bizi nahi nuen, egia esan. Beraz beste urte baterako konpromisoa hartu nuen, baina aurtengoa azkena izan da.

Zergatik hartu duzu erabakia?

Hamar hilabete erabat lotuta pasatzen ditudalako, eta hori gogorra da. Asteburuetan lagun arteko planen bat antolatzen badute, nik ezin izaten dut parte hartu; entrenamenduetara joan eta noiz etxeratuko naizen ez dut jakiten; neguan lanetik irten eta nire kabuz entrenatzen naiz Elgoibarren... oso lotua da. Urte asko eman ditut horrela eta orain nahi dut urte hauetan

babesa eman didaten lagun eta senideekin denbora gehiago egon.

Zure ibilbidean hainbat titulu irabazi dituzu. Zein balorazio egiten duzu?

Aurtengo denboraldian titulurik gabe geratu gara, eta pena ematen dit arraun ibilbidea horrela amaitzeak, baina beste perspektiba batetik begiratzen badut, balorazioa positiboa da. Edozein arraunlarik ezin du esan Kontxako Bandera hiru aldiz irabazi duela eta Euskotren Liga beste hiru aldiz. Aurten bigarren egin dugu Ligan eta postu ona da. Estreinakoz zortzi traineru lehiatu gara, eta zortzitik bigarren egitea ondo dago, baina gure helburua dena irabaztea zenez, penaz bukatu dut. Zarauzko estropada ere ez genuen irabazi, eta Kontxan ere ezin izan dugu. Pena handia izan da. Aurtengo Kontxa, gainera, oso berezia izan da. Orioko txaranga joan zen gu animatzera, Benito Lertxundiren *Mirotzak* abestia jo ziguten arraunean hasi aurretik, ke hori bat ere bota ziguten uretara sartzean... Oso polita izan

zen hasiera. Amaieran ere aldapa herritarrez, senidez eta lagunez beteta zegoen eta ezin izan genien titulua eskaini. Gogorra izan zen, eta negar pila bat egin nuen. Emoziok eta penak denak bat eginda nituen une hartan.

Ametsa bete zenuela esan zenion BARRENI, Kontxako Bandera estreinakoz irabazi zenuenean, eta beste bitan irabazi duzu gerora. Zer eman dizu arraunak eta zer eman diozu zuk arraunari?

Dena eman diot arraunari, neukan onena eta txarrena. Momentu onak eta txarrak bizi izan ditut, baina dena emanda eta ametsa beteta lagako dut arrauna. Kontxako Bandera irabaztea da edozein arraunlariren ametsa, eta nik hiru aldiz irabazi dut. Urte askoan ia talde berbera izan dugu, oinarritzko blokea berdina izan da neurri handi batean, eta lan ona egin dugu. Talde egonkorra izan gara, lagunak, konfiantza handia eduki dugu gure artean eta hori oso garrantzitsua da. Arraunak asko eman dit, baina batez ere, lagunak. Pentsatze hutsarekin emozionatu egiten naiz.

Aurrerantzean nola biziko duzu arrauna?

Zale totala izango naiz, eta estropada guztia jarraituko dut. Lagun asko ditut han, eta laguntzarik behar badute ere, prest egongo naiz. Ez dut 100%ean deskonektatuko, baina orain arteko loturarik ere ez dut izango. Jendea arraunarekin denboraldiak irauten duen bi hilabetetan gogoratzen da, baina urtea oso luzea egiten da, bereziki, negua. Hor atzean dagoen lan guztia ez da ikusten.

"Denboraldiak irauten duen bi hilabeteetan gogoratzen da jendea arraunarekin, baina urtea oso luzea egiten da, bereziki negua"

Elgoibarren arraunak ez dauka tradizio handirik. Nola iritsi zinen zu arraunera?

Ondarruko lagun batzuen bitartez iritsi nintzen. Kirolaria izan naiz beti, eta arrauna probatzea interesgarria iruditu zitzaidan. Uretan ibiltzean sortzen den soinua pila bat gustatu zitzaidan; oso sentsazio ona eman zidan. Egia esanda, beste kirolek ez didate horrelakorik eman. Gogorra da, baina asko ematen du aldi berean, bestela ez nituen horrenbeste urte egingo.

Elgoibarren erreferente izan zara arraunean. Zure atzetik besteren bat animatuko dela uste duzu?

Nire ilobak probatu du arrauna. Orion egin ditu ikastaro batzuk eta gustatu zaio, baina ez dakit jarraituko ote duen. 14 urte ditu eta betidanik ezagutu nau ni arraunean. Beste gazteren bat ere badakit Ondarrun ibili dela arraunean udalekuetan. Agian animatuko da norbait, baina barnealdeko herrietan ez da oso ohikoa.

Zein egoeratan dago gaur egun emakumezkoen arrauna?

Ni hasi nintzenean Orion arraunak indar handia



Etxeokok eta gertuko lagunek omenaldia egin zioten joan zen egunean, Elgoibarren.



zeukan, baina batez ere, gizonezkoenak. Gu hasi ginenean inork ez zuen gugan sinisten, eta askok uste dute ez dugula gizonezkoen besteko lanik egiten. Baina poliki-poliki emaitzak lortzen joan gara, eta gero eta gehiago baloratzen gaituzte. Telebistan ere gero eta indar gehiago hartzen ari da eta horrek laguntzen du. Gaur egun bai sentitzen dugu herriaren eta herritarren babes, baina izan da guk ere erakutsi dugulako merezi dugula. Hala ere, oraindik gizonezkoekin alde handia dago, batez ere, sarietan. Emakumezkoen lehenengo saria gizonezkoen seigarrenaren parekoa izango

da, gutxi gorabehera. Ekonomikoki ere guk ez dugu ezer kobratzen, eta horrekin borrokan ari gara azken pare bat urtetan; badirudi aurten zerbait lortuko dela. Gizonezkoek badute oinarrizko soldataren bat, baina arraunetik bizitzea oso zaila da. Afizio bat da, bereziki, emakumezkoetan. Orain behintzat talde bateko harrobitik sortua den arraunlari bat beste talde batera eramateko formazio klausula moduko bat eskatu daiteke arraunlari horrengatik. Hori gizonezkoekin parekatuta dago, baina beste gauza asko ez. Espero dut egunen batean baldintzak berdintzea.

MOTZEAN

► **Kirol bat?** Arrauna. Aurrerantzean beste kirol batzuk probatzeko asmoa daukat.

► **Kolore bat?** Horia.

► **Superstiziosoa ez zara, beraz?** Kolorearekin ez, baina badauzkat nire maniak. Arropa konkretuak janzten ditut. Mania horiek kutxatu egiten dira taldekideen artean. Ni hasi nintzenean esan zidaten estropada egunean ezin zela depilatu, Sansonek bezala ilea moztean indarra galtzen delako. Barre egiten nien orduan taldekideei, baina gaur egun, ni ere ez naiz depilatzen estropada egunean, ezta bezperan ere. Badaezpada!

► **Talde bat?** Orio.

► **Lorpenik kuttunena?** 2020ko Kontxako Bandera. 2019an irabazi genuen estreinakoz, baina 2020koa modu intimoagoan ospatu genuen, pandemia urtea izan zen eta askoz

gehiago bete ninduen lorpen hark.

► **Loa kendu dizun txapelketaren bat?** Kontxak oso urduri jartzen nau, eta Zarauzko estropadak ere bai. Orioko Estropada ere oso berezia izaten da guretzat.

► **Miresten duzun arraunlariren bat?** Nire lagunak.

► **Itsasoa ala mendia?** Itsasoa.

► **Itsasoa, bare ala haserre?** Haserre. Olatu handiak gustatzen zaizkit, emozio gehiago dauka.

► **Une on bat? Eta txar bat?** Onenak garaipenak izan dira, tituluak lortzea, eta horren ostean egin izan dizkiguten harrerak. Txarrenak aurtengo Zarauzko Estropada eta Kontxako Bandera.

► **Zer botako duzu faltan?** Taldekideekin egotea eta arraunean bizitzen den guztia.

Julen Urruzolak Bidasoa laga eta EON Alicante taldean jokatu du utzita

A sobal Ligako talderik indartsuenetarikoa da Irungo Bidasoa, eta ez da erraza taldean toki bat egitea. Jokalari gazteek minutuak behar dituzte eskarmentua hartzeko eta minutuak garesti daude Irun aldean. Hori dela eta, euren garapenean behar duten eskarmentu hori eskuratzeko, bi jokalari gazte, Julen Urruzola eta Xabier Barreto, EON Alicante taldeari lagatzea erabaki du Bidasoa taldeak 2023-24 denboraldirako. Etorkizun handiko bi jokalari gazteon formakuntzan "pauso bat gehiago" izango dela esan du taldeko kirol zuzendaria den Julen Aginagalde jokalari ohiak. Alacanteko taldeak gizonetzkoen Ohorezko Zilarrezko Mailan jokatzen du.

Urruzola baikor agertu da bere kirol ibilbideko erronka berrian. Etapa berri hau "oso polita" izango dela uste du, eta asko ikasteko asmoa du. "Oso pozik nago klubak duen proiektuaren



parte izateaz". Julen Urruzolak 21 urte ditu, 2,04 metroko garaiera eta ezker hegaleko postuan jokatzen du. Sanloko taldeetan hezi ostean, 2019-2020 denboraldi hasieran jaso zuen C.D. Bidasoaren deia, 17 urte zituenean, eta azken hiru denboraldiak egin ditu Irungo taldean. Guztira 16 partida jokatu ditu lehen taldearekin eta bi gol sartu.

Mintxeta xake txapelketarako izena emateko epea, zabalik



Urriaren 9tik abenduaren 19ra bitartean jokatuko dute Mintxeta xake txapelketaren hirugarren ekitaldia. Astero jokatuko dituzte partidak Mintxeta tabernan, ordubeteko mugarekin. Zubi Ondo xake taldetik jakitera eman dutenez, dagoeneko zabalik dago izena emateko epea, eta parte hartzera animatu dituzte xakelariak. Urriaren 6a izango da izena emateko azken eguna. Izena emateko idatzi mezua mikelfica@gmail.com helbide elektronikora edota 637 438 245 (Mikel Fidalgo) telefono zenbakiko whatsappera. Izen-abizenak eta telefono zenbaki bat eman behar dira.

Hiru Txikiak: Julen Dobarro eta Alex Bergua azkarrenak gazteetan

Hiru Txikiak Trail maratoia (42 km. eta 2016 m. positibo) jokatu zuten asteburuan Ermuan, eta Casa Astigarraga taldeko (CATT) sei kidek hartu zuten parte: Iker Arrillaga, Borja Rodriguez, Ion Perez-Cortes, Iban Zelaia, Jon Rodriguez eta Asier Belategik. Horiez gain, jubenilen kategorian lehiatu ziren Julen Dobarro mendarozarra eta Alex Bergua elgoibartarra, 12 kilometroko ibilbidean. Dobarro izan zen azkarrena, eta Berguak eskuratu zuen bigarren postua.



47.400 erabiltzaile hartu dituzte Mintxetako igerilekuek aurtengo udan

Udako hiru hilabete eta erdian, 47.401 erabiltzaile izan dituzte Mintxetako igerilekuek. 2013tik ez zituzten horrenbeste erabiltzaile zenbatu, baina kontuan izan behar da ekainaren 3tik irailaren 17ra luzatu dela aurtengo bainu denboraldia. Uztailaren 14a izan zen egunik jendetsuena, 1.609 erabiltzaileekin. Udal Kirol Patronatuak balorazio positiboa egin du: "Mintxetak erakutsi du elgoibartarrentzat aisialdirako eta kirolerako leku garrantzitsuenetako bat dela. 2001. urtean ireki zenetik, erabiltzaileen kopuruak gora egiten jarraitu du, adin guztientzako topagune eta dibertsiorako gune gisa sendotuz. Hala ere, garrantzitsua da aipatzea aldagelen erabilera desegokia identifikatu dela, eta erabiltzaile batzuek alderdi negatibo batzuk aipatu dituzte zentzu horretan. Udalak ekarpen horiek kontuan hartuko ditu eta etorkizuneko denboraldietan erabiltzaileen esperientzia hobetzeko moduak bilatuko ditu".



Eneko Etxanizek brontzezko domina eskuratu du jubeniletan Bertikalen Espainiako Txapelketan



Kilometro bertikalen Espainiako Txapelketa jokatu zuten domekan, Villanuan (Aragoi). Collaradako 2KV lasterketak lehia ofizial hori jaso zuen, FEDMEk antolatuta. Indibiduala jokatzear gain, selekzioen arteko txapelketa ere jokatu zuten, eta Euskal Mendizale Federazioaren taldeek emaitza bikainak lortu zituzten. Eneko Etxaniz elgoibartarra izan zen jubenil mailako euskal selekzioa osatu zuten antxitxikarietako bat eta podiumaren hirugarren koxkara igo ziren.

Soronea-Amma nagusi kluben arteko Trail Running-eko Espainiako Txapelketan



Soriako mendietan jokatu zuten Desafio Urbion lasterketak klubn arteko Espainiako Txapelketa jaso zuen, eta euskal talde bat urrearekin egin zen: Soronea-Amma; urte hasieran Tolosan sortu zuten trail taldea. Bost kidek osatu zuten taldea eta horietako bat izan zen Mayi Mujika, Larraitz Etxebeste, Larraitz Aragon, Nerea Iturriaga eta Sara Peñarekin batera. Mujika izan zen taldeko azkarrena, laugarren postuan sailkatuta. Oihana Kortazar beterranoak irabazi zuen 37 kilometro eta 2.600 metroko goranzko desnibela zituen lasterketa.

Arkaitz eta Leire Egaña neba-arrebak gailendu dira Debabarreneko Ehiza Xehe Txapelketan



Debabarreneko Ehiza Xehe Txapelketa jokatu zuten, domekan, Zambranako (Araba) El Castillo ehiza barrutian, eta ehiztari elgoibartarrak nabarmendu ziren berriro ere. Senior gizonetzkoetan lehen hiru postuak eskuratu zituzten elgoibartarrek. Arkaitz Egaña izan zen irabazlea, zazpi eper eta galeper bat ehizatuta eta David eta Carlos Conde anaiak osatu zuten podiuma. David Conderentzat izan zen bigarren postua, bost eper eta galeper batekin eta Carlos Conderentzat hirugarrenkoa, bost eper ehizatuta. Emakumezkoetan Leire Egaña gailendu zen, hiru eper ehizatuta. Beteranoen kategorian Jose Luis Gisasola ehiztari eibartarrak irabazi zuen txapelketa, bi eper eta hiru galeper ehizatuta. Mauro Gonzalez mendaroarentzat izan zen bigarren lekua, bi eperekin. Aipaturiko ehiztariak Gipuzkoako Ehiza Xehe Txapelketa jokatzeko sailkatu dira. Urriaren 1ean jokatuko dute, ohiko lekuan, Zambranan.

Oscar Mazariegosek eta Juanjo Cuencak irabazi dute Mendaron antolatutako futbolin txapelketa

Egoitz Horrillo mendaroarrak antolatu zuen futbolin txapelketa, Ormola tabernaren babesarekin, eta hamabi bikotek izena eman zuten, herrikoek zein kanpotik etorritakoek. Bi egunetan jokatzeko txapelketa zen izatez, baina azkenean, egun bakarrera jokatu zuten, eta zapatuan, parte hartu zuten guztiek elkarrekin afaldu zuten, Ormolan bertan. Txapelketa Oscar Mazariegosek eta Juanjo Cuencak irabazi zuten, finalerdietan Lolo Lopez eta Luis Benitori irabazita. Txapelketak ikusmina piztu zuen eta jende ugari ibili zen taberna inguruan. Sariak Ormola tabernakoek jarri zituzten, eta irabazleek Ormolan bertan afaltzeko txartela eta otar bana jaso zuten. Txapeldunordeei ere Ormolan afaltzeko txartela oparitu zieten, eta hirugarrenei garagardo pak bana. Txapelketak sortu zuen ikusmina, bigarren bat ere lotu dute antolatzaileek abenduaren 15-16rako.



LANA

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. Esperientziaduna. **644 943 297**

Adinekoak zaintzeko prest nago, gauzez. **604 986 450**

Adinekoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago, baita animaliak paseatzeko ere. Asteazken zehar edo asteburuetan. Esperientziaduna. **697 958 198**

Adinekoak zaintzeko edota etxetan garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa ditut. **642 577 823**

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago, baita txakurrak paseatzeko ere. Esperientzia daukat. **641 756 213**

Umeak zein adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko garbiketa lanak ere egiten ditut. **641 359 007**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka, asteburuetan, gauzez edo etxeko langile moduan. **611 215 176**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka, asteburuetan, gauzez edo etxeko langile moduan. **611 259 767**

Adinekoak zaintzen, etxeko garbitasun lanetan, zerbitzari edo sukaldeko laguntzaile moduan lan egiteko prest nago. Esperientzia daukat. **666 493 717**

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Esperientzia handia eta titulu soziosanitarioa ditut. **722 408 667**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa ditut. **602 490 595**

Gaztea eskaintzen da goizetan edo eguerdian umeak zaintzeko. **634 404 152**

PARTIKULARRAK

Eskola partikularrak ematen ditut, LHn eta DBHn. **626 425 080**

KINTOAK

1949an jaiotako kinto ospakizuna egingo dugu irailaren 30ean. 13:00etan elkartuko gara parrokiako arkupean erretratua ateratzeko eta bazkaria Sigma jatetxean izango dugu. Interesatuak 60 euro sartu behar dituzte izen-abizenak zehaztuz, irailaren 28a baino lehen: ES24 3035 0007 2500 7114 4032

BESTELAKOAK


Santa Klarako garaje batean betaurreko batzuk topatu ditut. **629 526 082**

Aukera bikaina! Oso egoera onean dagoen sofa-ohea salgai. 1,35 neurriko ohea egiten da. Egongelako mahaia ere saltzen dut. **630 517 095**



 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzko Aldeko Enpresen Administrazioen Kontseilua</p>  <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Gas-hornitzailea dugun enpresak jakinarazi digu gas-kontagailuetara iristeko plataforma bat jarri beharko genukeela, segurtasun arrazoiak tarteko. Gaur egun, kontagailu horiek patio batean daude, eta portaletik sartzen da hara, baina patio horretako zoria lokal baten teilatua da. Lokal-jabe horrek ez du uzten bere teilatu horretan fatxadari lotutako inongo plataformarik jartzen. Jakin nahiko nuke lokal jabe horrek eskubiderik duen uko egiteko, jakinda instalazio hori gabe ezingo direla kontagailuak irakurri.</p> <p>Teilatu gainean plataforma bat jartzea ez da uko egiteko arrazoiak, plataforma hori fatxadari lotuta egonda, eta nire iritziz, fatxadari lotuta egon ezta ere ez luke uko egiteko arrazoiak izan beharko, teilatu-zoru hori elementu komuna delako. Gainera, estrukturalari eragiten dion elementua izanda ezingo lioke komunitateari kalte-ordainik eskatu. Legez, etxe-jabe guztiak behartuta daude euren etxe eta lokaletan eraikinak eskatzen dituen obra eta bestelakoak egiteko baimena ematera. Eskubidea hori bai, obra horiek sortzen dizkieten kalteen ordaina eskatzeko komunitateari.</p> <p>Aholkua: Egin nahi duten hori elementu komun batean egin beharreko ezinbesteko obra izan ala ez, komunitate horrek legez ezarritako baldintza bat bete behar badu, jabeak hori derrigorik dago baimena ematera.</p> <p>GOAR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
--	--

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  688 655 658 bidalita.



Zorionak, **Laia!** 4 urte! Oso ondo pasa zure egunean! Muxu erraldoi bat, familiako denon partez.



Zorionak, **Markel,** atzo 6 urte bete zenituelako. Zelako ondo ospatu genuen! Muxu pila bat familiako denon partez.



Zorionak, **Malen!** 6 urte, jada! Ederki ospatuko dugu. Muxu potolo bat, etxeko denon partez.



Zorionak, **Luken,** igandean 9 urte beteko dituzulako. Familiako denon eta bereziki, anaia Mikelen partez. Muxu handi bat.



Zorionak, **Paul,** txapeldun! 6 urte! Primeran ospatu genuen! Patxo handi bat, etxeko denon partez.



Zorionak, **Ainere!** Dagoeneko 10 urte handi bete dituzu! Segi beti bezain alai eta maitagarri. Patxo erraldoi bat familiako denon partez. Maite zaitugu.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

BARRENeKo harpidedunentzako oharra

Buzoiko **B** pegatina falta bazaizu edo hondatuta baduzu, **BARRENeN** bulegora etorri eta berria emango dizugu.

Banaketa sistema errazteko behar-beharrezkoa dugu zuen buzoiak pegatinarekin markatzea.

Mesedez, ez ezazue pegatina kendu buzoitik. Gure banatzaileek eskertuko dute.



EXPRESS ESKAINTZAK!

BOSCH WAU28S42ES ARROPA GARBIGAILUA



589 €



- 8 kg-ko karga
- 1.400 b/min
- Etenaldia + karga funtzioa
- Vario Drum danborra
- Active Water teknologia
- I-DOS Garbigarriaren eta leungarriaren autodosisifikazio adimenduna

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

22 BARIKUA

18:30 Argazki erakusketa: 'Hiri tipologiak'. Miguel Trillo argazkilariak bere lanak jarriko ditu ikusgai. Ongarrik antolatuta, Kultur Etxeko erakusketa gelan, urriaren 6ra arte.

18:30 7. arteari buruzko kafe tertulia. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du. Lilan izango da, eta mokadutxo eskainiko dute.

19:00 Hitzaldia: 'Deba haraneko historiaurrea makrougaztunen ikuspegitik. Ondare arkeologiko eta paleontologikoaren garrantzia iragana ulertzeko'. Mendaroko udaletxeko udalbatza aretoan. EHUK eta Morkaiko-Leizarpe espeleologia taldeak antolatuta, Udalaren laguntzarekin. Hizlaria: Aritz Villaluenga EHUKo irakaslea.

23:00 Kontzertua: 'Sotoko hotsak'. Cometa taldearen kontzertua. Sinuösek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

23 ZAPATUA

12:00 Demetrio Vallejori omenaldia. Errosario kalean. Antolatzailea: Elgoibar1936.

17:00 Gararock jaialdia. Mendaroko Garagartza auzoan, Gararock taldeak antolatuta.

17:00-18:00 Aurpegiak margotzeko tailerrak haurrentzat.

17:30 Kontzertuak: Ithaca, Magia Bruta, Rukula, Sua eta Doctor Explosion.

24 DOMEKA

10:00 Diana, Elgoibarko dultzaineroekin.

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua. Herriko Antzokian. Egitaraua:

1. *Olympic fanfare and theme* (J. Williams).
2. *El último mohicano* (T. Jones).
3. *Cielo andaluz* (P. Marquina).
4. *Encanto* (R. W. Smith)
5. *El caserío*, preludioa (J. Guridi)
6. *The eighties* (J. Higgins).

25 ASTELEHENA

16:00 Zaintzako eta etxez etxeko lanei buruzko aholkularitza zerbitzua, Merlin Medinarekin. Bakarkako saioak, Lilan. Hitzordua hartzeko: 688 640 983

18:00 Hausnarketa taldea: 'Izen onak, generoa du'. Loredi Salegik gidatuta, Lilan.

26 MARTITZENA

17:00 Hitzaldia: 'Beti on, telelaguntza zerbitzu publikoa'. Elgoibarko Jubilatuen Biltokian.

28 EGUENA

18:30 'Hizkuntza aniztasuna Elgoibarren: jatorri atzeritarreko bizilagunak eta euskara' ikerketa lanaren aurkezpena. Aita Agirre kulturgunean.

29 BARIKUA

San Migel jaietako lehenengo eguna

10:30 Kanpai jotzea

11:00 Meza eta ondoren, meza ostekoa Baltzola eta Andonegi trikitilariekin. Salda eta txorizoa banatuko dute.

13:00 Pilota partidak

14:30 Bazkaria.

Zapatu eta domekako egitaraua, albistean.



VI. URTEURRENA

Isaac Ramos Lopez

2017ko irailaren 12an hil zen, 66 urte zituela.

**Joan zinen gu hemen utzita,
baina, jakin ezazu, inoiz ez zaitugula ahaztuko.**



Zinea**Iñaki Agirre zinemaldia****'Los reyes del mundo'**

22 barikua: 19:00

'Scarlet'

23 zapatua: 19:00 / 22:15

24 domeka: 19:00

25 astelehena: 21:00

'Tori y Lokita'

28 eguena: 21:00

29 barikua: 21:00

2023ko botika ordutegiak: 09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

IRAILA

22 BARIKUA
 23 ZAPATUA
 24 DOMEKA
 25 ASTELEHENA
 26 MARTITZENA
 27 EGUAZTENA
 28 EGUENA
 29 BARIKUA

Egunez

■ Fernandez
 Yudego
 Yudego
 ■ Oruesagasti
 Barrenetxea
 ■ Ibañez
 Garitaonandia
 Arriola

2023 urte guztian, gaez: 22:00-09:00**Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)
943 203 052**

■ Fernandez:

Herriko Enparantza,4
 Garagartza (Mendaro)
 943 756 142

■ Ibañez:

Rekalde, 1 (Soraluze)
 943 751 638


■ Oruesagasti:

Kalebarren, 9 (Soraluze)
 943 751 384

**Antonio Azpiazu Zubizarreta**

2023ko irailaren 13an hil zen, 75 urte zituela.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
 bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.






Iñigo Lamelas



Iñigo Lamelas



Ba al duzu konpondu beharreko arroparik?
Ekarri, eta berri-berri utziko dizugu, zeure neurrira.
Jantzigintzarako makina bereziak ditugu,
edozein ehun konpondu ahal izateko:



Komertzioekin lan egiten dugu
(eteko ehungintzekin eta jantziekin)
TARIFA BEREZIAK!

**PUNTUZKO EHUNAK, TXIRRINDULARITZAKO MAILOTAK
ETA KULOTEAK, LARRUA, ZETA ETA ABAR LUZE BAT...**

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

Osasun gida

aldaz
hortz klinikak
RPS233/13
943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

NATUR HOUSE
Ainara Iriando Ansoa
GIZA ELKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA
RPS 203/16
Toribio Etxebarria, 22
Elbar
677 551 850

fisio&mas
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea
Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 953 698
www.fisio-mas.com
RPS 177/18

RPS 271/12
ainhoa
fisioterapia
Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
943 740 359
Deba
943 192 192

leku edero
hortz klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar
943 530 053

federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

Jarraitu gaitzazu **BARRENEK** Youtuben duen kanalean!



Sokamutua (2023ko sanbartolomeak)



Txiki Eguna (2023ko sanbartolomeak)



San Bartolome Eguneko laburpen-bideoa (2023ko sanbartolomeak)



Bezero Eguna, abuztuak 23 (2023ko San Bartolome jaiak)



Sara Arriolari omenaldia



Zaharrena eta jaioberriak lehenak festa hasten



Jagoba Amasateri omenaldia



Deba ibai garbitzen



Erraldi dantzeri berriak (Arantza Aginakaroren eta Jon Lizasoaren estroinak)



Gazteen Eguna (2022ko sanbartolomeak, Elgoibar)



Verdini dantza taldearen saioa Elgoibarran



1983ko Ufalak Elgoibarran, bideoa (Txosten Mujikaren itzargintza)



www.youtube.com/user/Elgoibarrennet/videos



G R E M I O N E N G I D A



LEIHOAK

**LODOSO
LEIHOAK**

SIGMA INDUSTRIALDEA, 223
lodosofj@gmail.com
943 743 490

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
 Pedro Migel Urruzuno, 8
943 740 512
 Faxa: 943 743 565
bienda@pagoagasasa.com
www.pagoagasasa.com

BILTEGIA
 San Antolin, 13 - ELGOIBAR
taller@pagoagasasa.com
943 740 279

AROZTEGIA

BIENA S.L.
AROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
 tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus

PINTURA

BIOK
 dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

ITURGINTZA

SANTANA

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazamdi kalea, 17, behea
 Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

AROZTEGIA

iraolagoitia

aroztegia - altzariak - eke-aldaketak

Kurutx-gain Industrialdea, 9
 20850 Mendara
943 756 112
636 497 485
www.iraolagoitia.com

ELEKTRIZITATEA

egoluz
 ELEKTRIZITATEA S.L.

Andres: 630 957 345
677 512 462

Pedro Migel Urruzuno, 14 behea
 20870 ELGOIBAR

Bulegoa: **943 200 697**
ego.luz@hotmail.com

**IZURRIEN KONTRAKO
TRATAMENDUAK**

PLAGANATURA

Cadunkola Sakal Ambiental

618 198 760
ivan@plaganatura.eus
www.plaganatura.eus

AROZTEGIA

IMAR
AROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com
 @carpinteria_imar

Gidan agertzearen onurak!

23,10€ hilan

12 aliz urtean

4.885 alo astero

22 Eren truke, hileru, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu **BARREN** astekarian.

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleihu ikusiena.

4.885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron **DOAN**.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk
 20870 ELGOIBAR